

1. Data eta tokia
 - a. XIX. Sorginen Lasterketa urriaren 4ean izango da. Ibilbide luzea Atxondoko (Bizkaia) Axpe auzoan hasiko da goizeko 9:30etan, helmuga ere leku berean izango delarik. Bestalde, ibilbide laburra goizeko 10:00etan hasiko da, irteera eta amaiera puntu berdinean izango duelarik.
2. Ibilbideak
 - a. Ibilbide luzeak 21 km-tako distantzia eta 1750 metroko desnibel positiboa izango du. Lasterketako punturik garaiena Anbotoko tontorra izango da (1331m). Eguraldi baldintzak egokiak ez baldin badira eta segurtasunagatik antolakuntzak horrela erabakitzen badu, Anboto igo ordeztu Anbotori buelta emango zaio.
 - b. Ibilbide laburrak 11,7 km-tako distantzia eta 890 metrotako desnibel positiboa izango du. Lasterketaren punturik garaiena Larrano izango da (980m).
3. Parte hartzaileak
 - a. 350 korrikalariren kupoa ezarriko da lasterketa luzerako eta 150 korrikalariren kupoa lasterketa laburrerako.
 - b. 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du lasterketa luzean. Lasterketa laburrean 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du eta 15 urtetik gorakoek gurasoen edo legezko tutoreen baimenarekin.
4. Kategoriak
 - a. Lasterketa luzean
 - i. Absolutu maila, gizonezko eta emakumezkoetan (40 urte baino gutxiagorarte).
 - ii. Beterano maila, gizonezko eta emakumezkoetan (40 urte edo gehiago izatea urte naturalean).
 - iii. Atxondoko lehen emakumezko eta gizonezkoa.
 - b. Lasterketa laburrean
 - i. Absolutu maila, gizonezko eta emakumezkoetan.
 - ii. Atxondoko lehen emakumezko eta gizonezkoa.
5. Izen emateak
 - a. Kronoak plataforman (www.kronoak.com) burutu ahalko dira izen emateak apirilaren 13tik aurrera, goizeko 8etan zabalduko da horretarako epea.
 - b. Izena emateko azken eguna irailak 6a izango da, gaueko 23:59ak arte.
 - c. Kupoak eta prezioak
 - i. Lasterketa luzean 350 korrikalariren kupoa gainditu ondoren izena ematen dutenak itxaron zerrendan sartuko dira. Izen ematea burutzeko 28 € ordaindu beharko dituzte federatuek eta 30€ federatu gabeek.
 - ii. Lasterketa laburrean 150 korrikalariren kupoa gainditu ondoren izena ematen dutenak itxaron zerrendan sartuko dira. Izen ematea burutzeko 18 € ordaindu beharko dituzte federatuek eta 20€ federatu gabeek.
6. Baja emateak
 - a. Baja irailak 6a edo lehenago komunikatuz gero, inskripzio kostu osoa itzuliko da (gestio gastuetako 1€ kenduta), beti ere, itxaron zerrendatik ordeztu korrikalari bat sartzea lortzen bada.
 - b. Baja antolakuntzari irailak 6a eta irailak 20a bitartean komunikatuz gero, inskripzio kostuaren %50a itzuliko da, beti ere, itxaron zerrendatik ordeztu

- korrikalari bat sartzea lortzen bada.
- c. Baja irailak 20aren ostean komunikatzen bada, ez da inskripzio kostua itzuliko.
 - d. Antolakuntzak lasterkari baten baja eskaera jasotzen duenean, itxaron zerrendatik beste bat sartuko du, izen-ematearen hurrenkera berean.
7. Derrigorrezko materiala
 - a. Txanodun zira edo txanorik ez baldin badu zirak, buff bat edo txano bat eraman beharko da aparte.
 - b. Manta termikoa.
 - c. Soft-flasha (gutxienez 500ml eramateko beste).
 - d. Eguraldia txarra den kasuan, antolakuntzak material gehigarria eska dezake.
 8. Dorsal banaketa
 - a. **Urriaren 2an, ostiralean, Apatamonasterioko eskolan** dortsala jasotzeko aukera izango da, arratsaldeko **18:30etatik 20:30etara**. **Larunbatean** ere arratsaldeko **18:00etatik 19:30etara** izango da aukera hori, leku berdinean. **Igandean, Axpeko** plazan dagoen **soziedadean** izango da dorsal banaketa goizeko **7:30etatik 8:40rarte lasterketa luzearentzat**, eta goizeko **9:10erarte lasterketa laburrekoentzat**. **Beranduago datorrenak ezingo du dorsalik jaso**.
 - b. Federatu gabeek NAN-a erakutsi beharko dute dortsala jasotzerakoan, eta federatuek mendiko lizentzia ere bai.
 9. Kontsigna zerbitzua
 - a. Axpeko frontoian egongo da kontsigna usteko aukera goizeko 7:30etatik 8:40rarte lasterketa luzearentzat, eta goizeko 9:10erarte lasterketa laburrekoentzat.
 10. Irteera
 - a. Lasterketa bakoitza hasi baino 15 minutu lehenago irteera puntura hurbildu beharko dute korrikalariak eta bolondresak korrikalari bakoitzak derrigorrezko materiala duen ziurtatuko dute.
 11. Denbora muga (lasterketa luzearentzat soilik)
 - a. Zabalandiko anoa gunean (10. km gutxi gora behera, Anboto igo baino lehen) 2 ordu eta 15 minutu baino lehenagoko denboran igaro beharko da. Puntu horretatik 2 ordu eta 15 minututan pasatzen den korrikalaria, metan 4 ordu eta 30 minututan egon daitekeela kalkulatu dugu. Korrikalariak denbora muga hori gainditzen badu, antolakuntzako bolondresak kotxez garraiatu ditzake korrikalariak edo bestela ibilbidea jarrai dezake dortsala kenduta eta bere erantzunkizunpean.
 12. Anoa guneak
 - a. Lasterketa luzea
 - i. Atxeko baserrian (6 km inguruan).
 - ii. Zabalandin (10 km inguruan, Anboto igotzen hasi aurretik).
 - iii. Pagazelain (12'5 km inguruan, Anboto jeitsi bezain laster).
 - iv. Guenzelain (16 km inguruan, Artola igoten hasi aurretik).
 - v. Helmugan.
 - b. Lasterketa laburra
 - i. Guenzelain (7'7 km inguruan, Artola igoten hasi aurretik).
 - ii. Helmugan.

- c. Anoa guneeetan ura hartzeko korrikalari bakoitzak bere edalontzi edo shoft-flasha eraman beharko du.
- d. Anoa guneeetan edo bere inguruetan basura poltsak jarriko dira edozein zabor (gelen plastikoak, edalontziak,...) bertara botatzeko. Poltsa horietatik kanpo edozein zabor botatzen baldin bada, korrikalaria lasterketaz kanpo huts dezake antolakuntzak.

13. Helmugaratzea

- a. Helmuga lerroa gainditutakoan korrikalariak ezingo dira bertan geratu pilaketak ekiditeko. Antolakuntzako bolondresen gomendioak jarraituz, helmuga gurutzatutakoan seinalizatuta egongo den bidea jarraituko dute mangeren gune batetik pasatuz.
- b. Mangeren gune honetan korrikalariak oinetakoak garbitu ahal izango dituzte. Dutxetan sartu aurretik, derrigorrezkoa izango da aurretik oinetakoak mangeretan garbitzea, dutxak garbi mantentzeko.

14. Dutxak

- a. Axpeko frontoiaren atzekaldean izango dira dutxak.

15. Sari banaketa

a. Lasterketa luzean

i. Absolutu mailan

- 1. emakume zein gizonezkoarentzat 300€, txapela, garaikurra eta datorren urterako gonbidapena.
- 2. emakume zein gizonezkoarentzat 200€, garaikurra eta datorren urterako gonbidapena.
- 3. emakume zein gizonezkoarentzat 100€ eta garaikurra eta datorren urterako gonbidapena.
- 4. emakume zein gizonezkoarentzat datorren urterako gonbidapena.
- 5. emakume zein gizonezkoarentzat datorren urterako gonbidapena.
- 100€ Zabalanditik Antora arteko igoera azkarrenarentzat (gizonezkoa eta emakumezkoa). Sari hau jaso ahal izateko, derrigorrezkoa da metara denbora mugaren barruan sartzea.

ii. Beterano mailan (urtean zehar 40 urte egingo dutenak edo zaharragoak)

- 1. emakume zein gizonezkoarentzat garaikurra, ezti eta gazta.
- 2. emakume zein gizonezkoarentzat garaikurra, ezti eta gazta.
- 3. emakume zein gizonezkoarentzat garaikurra, ezti eta gazta.

iii. Atxondoko 1. emakume zein gizonezkoarentzat otordua Atxondoko jatetxe batean.

b. Lasterketa laburrean

i. Absolutu mailan

- 1. emakume zein gizonezkoarentzat, txapela eta garaikurra.
- 2. emakume zein gizonezkoarentzat, garaikurra.
- 3. emakume zein gizonezkoarentzat, garaikurra

ii. Atxondoko 1. emakume zein gizonezkoarentzat otordua Atxondoko jatetxe batean.

- c. 13:30etan emango zaio hasiera sari banaketari (edo azken korrikalaria arinago

heldzen bada, azken korrikalaria heldu ondoren) Axpeko plazan jarriko den eszenatokian.

16. Proba puntuagarria

- a. Durangaldea Kopa Trail koparako proba puntuagarria izango dira lasterketa biak; lasterketa luzea Mari Kopan eta lasterketa laburra Sugaar Kopan.
- b. EMFko Euskal Herriko Lineako koparako proba puntuagarria izango dira lasterketa biak; Lasterketa luzea absolutu mailan eta lasterketa laburra kadete mailan (urtean zehar 15 edo 16 urte egingo dutenak), gazte mailan (urtean zehar 17 edo 18 urte egingo dutenak) eta junior mailan (urtean zehar 19 edo 20 urte egingo dutenak).